

Izenburua:

Ordena ezazu gertaera-segida



www.fundaciondiabetes.org

JARDUERA

Carol 8etan jaiki da.

5 minutu beranduago, glukosa-maila neurtu du.

Txukundu ondoren gosaltzera joan da. Sukaldeko ordulariari begiratu dio. 8:30 dira.

Intsulina injektatu ondoren gosaldu egin du: ogi txigortua azukrerik gabeko marmeladarekin eta baso bat esne.

8:45ean autobusera igo da. Ia ez du jolastokian jolasteko denborarik izan, 9etan klasera sartzeko ordua dela adierazten duen txirrinak jo baitu.

Osatu



Jaiki



Glukosa
neurtu



Intsulina
injektatu eta
gosaldu



Autobu-
sera igo



Klasera
sartu